




Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

«Lolita Azpeitiko neska polita...»



Inauteriek badute gure barruan zerbait pizteko eta mugitzeko gaitasuna. Gari GARAIALDE - Juan Carlos RUIZ | FOKU



ten udaberria aurreratu zaigun hone-tan, mozorroak ere egokitu egin behar izan dira. Klima al-daketa horraino.

Zenbat oroitzapen gazte garaikoak, zein ederrak izaten ziren inauteriak!

Hango mozorroak, lehen aldiz elegan-tez janzten ginen egun berezi hura... zenbat maitasun is-torio eta zenbat de-samore! Lehendabi-ziko gaupasak, lehen konfidentziak, lehen musuak!

Mozorrotzeak ba-du harremana zure barneko haur horre-kin konektatzeko gaitasunarekin, jo-lasteko eta ondo pa-satzeko gaitasunare-kin. Berrito ere

pailazo bihurtzea edota rol joko horretan, antzerkian egiten den moduan, disoziatu eta, adibidez, Rosalia bihurtzea. Hori sekulakoa da.

Badu harremana irudimenarekin eta zure buruaz barre egiteko gaitasunarekin, lotsak gainditzearekin, eta egun batez behintzat zure eguneroko errutina estutik atera eta dena posible dela sentitzeko ahalmenarekin.

Hala ere, aurten badut gazi-gozoa den sentsazioa, neure buruari disfrutatzeko baimena ematerakoan kontraesana sentitu baitut. Urte hasiera gogorra izaten ari da, nahasia. Gure alboan, hoge kilometro eska-sera dagoen Zaldibarko zaborte-giaren gaiak barruak as-tindu dizkit! Hango bi gizonen gorpu galduek mina eta haserrea sortzen dute, baita Eibar eta Ermuko eskoletako leiho itxiek, haurdunentzako pautak bereziek eta inauteri debekatuek ere.

Zabor usaina dario guztiari, ezta? Ez al da horrela? •

Aurtengoz, joan dira inauteriak, gure inguruan hain sentsazio ezberdinak pizten dituzten festak. Badago edozein lekutara joango litzatekeen jendea mozorrotzearen inguruan edozer gauza entzun aurretik. Beste batzuk, berriz, urte guztian egun hauen zain amorratuta egoten dira. Gure kasuan, Azpeitian, egun maiteak dira orokorrean; sokamuturra, aste-arte goizeko diana, desfileak eta karrozak, txikiteo elegante eguna... Hain biziak izaten dira inauteriak!

Ostegun gizen ilunabarrean plazan banda entzun nuen inauteriko kantuak jotzen: «Lolita Azpeitiko neska polita...». Eta han entzuten zegoen jende mordoari inauteriko gogoa pizten hasi zitzaion, odola bor-bor zainetatik barrena. Nahi gabe gorputza batetik bestera dantzan jartzen askori.

Gure gazteak ere hala ibili dira, irrikaz mozorroak prestatu, ileordeak erosi, etxeko ganbarak astindu... Aur-